

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URRUNAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea VI-10181 ehiza esparruan (Eribe-Buruaga) sartzeko

Urrunagako Administrazio Batzarrak erabaki du bere lurrak VI-10181 ehiza esparruan sartzea, ehiza esparru horrenak 2020an bukatu arte. Egun Okoizta, Buruaga, Eribe, Gopegi eta Zestafeko herriek eratzen dute esparru hori.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera horri, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun balioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Urrunaga, 2019ko uztailaren 1a

Lehendakaria

JESÚS CARLOS ORTIZ DE MONTOYA SANTOTOMÁS